



'Nire argazkia' film dokumentala DEIA egunkariarekin batera banatuko da azaroan, DVD formatuan. ARGAZKIA: KARLOS GÓMEZ

Euskalkiei eta memoria historikoari buruzko 'argazki' xume eta hurbila

Jokin Etcheverriak eta Benjamin Duinatek 'Nire argazkia' filma aurkeztu dute

BILBO. Argazki soil batek hamaika oroitzapen harrapatu ditzake bere baitan. Poza, tristezia eta milaka emozioen isla dira irudiak, eta horixe da, hain zuzen, *Nire argazkia* film dokumentalak jasotzen duena. Jokin Etcheverriak eta Benjamin Duinatek buruturiko ikus-entzunezko pieza hau atzo aurkeztu zen Bilboko Kafe Antzokian.

JOK Films etxeak ekoitzia, egitasmoak Bizkaiko Foru Aldundia- ren diru-laguntza jaso du, eta laster ikusgai izango da Euskal Herri osoan zenbait kulturgunetan eskainiko diren emanaldien bitartez, tartean Bilbo, Baiona, Donostia eta Gasteiz direla, besteak beste.

EITB-k ere parte hartu du ekoizpenean. Datorren urtean, dokumentala ETB-1 katean hedatzea aurreikusi da. Era berean, DEIAk

ere babesa eskainio dio proiektu honi, eta *Nire argazkia* DVD formatuan salgai jarriko du egunkariarekin batera datorren hilean.

Euskalkiak eta memoria historikoa bizirik mantentzeko asmoz, hiru familietako ahaide batzuk elkarrizketatu izan dira, eta bakoitzari argazki batekin lotutako oroitzapenak aurkezteko galdegin zaio, "hainbat istorio euskalki ezberdinetan aditu nahian", zehaztu dute egitasmo honen sustatzaileek. "Xumeki baina borondate sendoarekin, mintzaira eta gizarte memoriaren parte bat artxibatu nahi izan da", gaineratu dute.

Euskalkiak ikertzearren, familia elkarrizketatuen "intimitatean" barneratu badira ere, filmaren ikuspuntua ez da sentsazionalista ezta nostalgikoa ere. "Euskara bere

"Proiektu honi esker, gure hizkuntzak zenbat posibilitate eskaintzen dizkigun ohartu naiz"

JOKIN ETCHEVERRIA
'Nire argazkia' filmaren zuzendaria

"Jendeak euskararekin duen harremanaz gogoeta egiten badu, loriatua izanen naiz"

BENJAMIN DUINAT
'Nire argazkia' filmaren gidolaria

osotasunean erakutsi nahi izan dugu, oroitzapenez baliatuz -adierazi du Etcheverriak-; proiektu honi esker, gure hizkuntzak zenbat posibilitate eskaintzen dizkigun ohartu naiz, bai irudi mailan, bai narrazioaren aldetik".

Duinat, berriz, gidoiaren ardura-duna da. "Egitasmoa, jendea eta gure mintzaira hertsiki eta hobeki ezagutzeko egina da. Film honen bidez erdiesten badugu jendeak bere egunerokotasunean euskararekin duen harremanaz gogoeta egitea, zinez loriatua izanen naiz", azaldu du.

Testigantzez gain, EHUko Iñaki Gaminde hizkuntzalariak gaur egungo euskararen egoerari buruzko gogoetak ere jaso dira. "Euskara norantz doan aztertu behar da", baieztatu du. >DEIA